



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/01/23

Aho batez onetsi da Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Talka Planean genero ikuspegia jasotearen inguruko mozinoa

Gaur goizean Gernikako Batzarretxean alkartu dan Bizkaiko Batzar Nagusietako Osokoak kontrako boto barik onetsi ditu bertako eguneko gai zerrendan jasotako ekimenetako bi: alde batetik, Batzarretako EH Bildu taldearen mozino bat, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko eskualdeen garapenerako Talka Planeko jarduketetan genero ikuspegia sartzeko; eta bestetik, estaduko legedia energia ekoizpenaren balioaren ganeko zergara errotan dauen Foru Dekretu Arauemoilea. Osokoan eragina izan dau goizeko lehenengo orduetan izan dan eurite handiak, eta beranduago hasi behar izan da, Gernikara ailegetako arazoak egozalako, Muxikatik igarotearre errepidean ur baltsa handi bat egoalako.

María Jesus Padrones EH Bilduko batzarkidea izan da Osokoaren aurrean mozino bat aurkeztu dauena, Bizkaiko Batzar Nagusiek agindeia egin deioen Aldundiari, enpleguagaz erlacionauta arazo gehien dituen eskualdeetako biko, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko, Talka Planeko jarduketek generoari jagokonez daukien eragina ebaluau daian. Horrez gain, ekimenean eskaria egiten da, Lanbide Heziketarako aukeraketa prozesuak eta programak egokitu daiezan, sexuak ezarritako rolak eta estereotipoak gainditzeko, eta baita Administrazioak bultzatzen dituan lanpostuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua dagola bermatzera zuzendutako neurriak ezarteko be.

Mozinoa, aho batez onetsi dabe bertan egon diran 46 batzarkideek. Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariaren eretxiz, “tresna erabilgarria” da. Jesús Isasi Bizkaiko Talde Popularreko bozeroaleak, hasiera batean, mozinoaren parte bat gaur egun beteten dala eta abstenidu egingo dala esan dau. Dana dala, azkenean, talde horretako hiru kideek aldeko botoa emon dabe. Neskutz Rodríguez, Podemos Bizkaiaaren izenean, mozinoaren alde agertu da, eta udalerrri baxotxean bardintasanaren aldeko jarduketak planifiketan lagunduko dauela esan dau. Euskal Sozialistak taldearen izenean, Josu Montalbán be mozinoaren alde agertu da, Foru Aldundiak mozinoak planteetan dituan ardurak daborduko konpartiduten dituala esanez. Euzko Abertzaleak taldeko Irene Edesak, bere taldeak ekimenaren funtsa konpartiduten dauela esan dau, baina nabarmendu dauenez, Bizkaiko Foru Aldundia “bardintasanagaz konprometiduta dau, eta urteak daroaz arlo horretan beharrean”.

Gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietako Osokoak onetsi dauen bigarren ekimena Ogasun eta Finantza Saileko Foru Dekretu Arauemoile baten ganekoa izan da. Horren bitartez, 2018 eta 2019ko ekitaldietako energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren ganeko zergari jagokozan zerga-oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoa zehazteko erregela bereziak ezarten dira. José María Iruarizaga Foru Diputatuak azaldu dauenez, Estaduak une baxotxean ezarten dituan arau berberak jarraitzen dituan zerga kontzertaua da, eta aldaketak jaso ditu, orain denpora gitxi energiaren trantsiziorako eta kontsumitzaileen babeserako preminazko neurriei buruzko Errege Dekretu-lege bat onetsi eta gero.

Gai hori eguneko gai zerrendako lehenengo puntuan landu danetz, une horretan Batzarretan 37 batzarkide baino ez egozan. Puntuak aldeko 27 boto (Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Talde Popularra eta Talde Mistoia) eta 10 abstentzino (EH Bildu eta Podemos Bizkaia) jaso ditu.

Mendien eta Metroaren 4. eta 5. lineen ganeko Foru Arau Proposamena

Beste alde batetik, gaurko Osokoak ez dau onetsi Mikel Kormenzanak, EH Bilduren izenean, Bizkaiko Mendien ganean aurkeztu dauen Foru Arau Proposamena. Batzarkideak azaldu dauenez, bere taldea, espezieen aniztasunaren, ustiapenen errentagarritasunaren eta egurraren sektorea indartzearen eta garatzearen aldeko apustua egiten daben ekoizpen ereduetarako bidea egitearen alde dago. Talde gehienek esan dabe ez dala holango proposamen bat komeni legealdiaren bukaeran, eta ez dagola adostasunik ikututako sektorearen gehiengoagaz, eta proposamenak Podemos Bizkaia taldearen aldeko botoak baino ez ditu lortu. Hori dala eta, aldeko 14 boto eta kontrako 30 lortu ditu.

Jesús Isasi Talde Popularreko batzarkideak, Metro Bilbaoren 4. (Rekalde-Moyua) eta 5. (Etxebarri-Usansolo) lineen azterlanen inguruan aurkeztu dauen mozino proposamenak be ez ditu behar besteko boto lortu. 2019an ibilpide horreek martxan jarteko partida izenduna eukiko dauen aurrekontu erreserba egitea proponidu dau Isasik. Mozinoak, Zigor Isuskiza batzarkideak aurkeztutako osoko zuzenketa-eskea jaso dau, horren barruan, gune bietako gizarte arloko eragileen aldetik partaidetzan oinarritutako prozesua sartzea eskatuz. Zuzenketa-eskea ez da onartu, eta mozinoa ez da onetsi, Talde Popularreko hiru batzarkideen aldeko botoakaz, Talde Mistoaren, Podemos Bizkaiaren eta EH Bilduren 15 abstentzinoakaz eta Foru Gobernua eusten daben talde bien kontrako 28 botoakaz.

Herritarren partaidetzea eta Espainiako Erregeak daukan ‘Bizkaiko Jaun’ titulua kentzea

Eneritz De Madariaga Podemos Bizkaia taldeko batzarkideak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu orokorrak egiteko eta horreen ganeko informazioa emoteko orduan herritarren partaidetzea bermatzeko neurrien ganean aurkeztu dauen mozinoa be ez da onetsi. De Madariagak, Foru Aldundiari hainbat neurri hartzeko agindua emotea proponidu dau, irakurketa errazeko bertsino bat prestetea aurrekontuak hobeto ulertu ahal izateko, informazio kanpaina baten bitartez ezagutuazotea, herritarren partaidetzarako prozesua diseinetzea, edo urtero aurrekontuaren ehuneko jakin bat proposamen horreek gauzatzera bideratzea, beste batzuen artean. Proposamena aurkeztu dauen taldeagaz batera, Talde Mistoak eta EH Bilduk aldeko botoa emon dabe, 15 boto guztira; Talde Popularreko hiru batzarkideak abstenidu egin dira; eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeetako 28 ordezkariak kontrako botoa emon dabe.

Osokoa, EH Bildu taldeak, Espainiako Erregeak daukan “Bizkaiko Jaun” titulua kentzeko aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamenaren eztabaidegaz eta bozketeagaz bukatu da. Ekimena Josu Unanue bozeroaleak defendidu dau, eta eztabaida historiko bizia eragin dau. Bertan, Talde Mistoko Arturo Aldecoak, Talde Popularreko Javier Ruizek, Podemos Bizkaia taldeko José Ángel Elgezabalek, Euskal Sozialistak taldeko Juan Oterminek eta Euzko Abertzaleak taldeko Jon Andoni Atutxak hartu dabe parte. Proposamenak aldeko 14 boto baino ez ditu jaso, proposamena aurkeztu dauen taldearenak eta Podemosenak. Gainerako taldeek, Talde Mistoak, Talde Popularrak eta Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeek kontrako botoa emon dabe. Dana dala, monarkiaren erakundearen inguruko eztabaidan oso jarrera desbardinak erakutsi ditue.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
23/01/2019

Aprobación unánime de una moción sobre perspectiva de género en el Plan de Choque en Ezkerraldea y Meatzaldea

El Pleno de las Juntas Generales de Bizkaia, reunido esta mañana en la Casa de Juntas de Gernika, ha aprobado sin votos en contra dos de las iniciativas incluidas en su orden del día: por un lado, una moción del grupo juntero de EH Bildu para incorporar la perspectiva de género a las actuaciones del Plan de Choque para el desarrollo de las comarcas de Ezkerraldea y Meatzaldea, y por otro un Decreto Foral Normativo que traslada la legislación estatal al Impuesto sobre el valor de la producción de energía. El Pleno se ha visto afectado por las intensas lluvias registradas a primera hora de la mañana, y ha tenido que iniciarse con retraso debido a las dificultades de acceso a la Villa Foral por la existencia de una balsa de agua en la carretera a su paso por la localidad de Muxika.

La juntera de EH Bildu María Jesús Padrones ha sido la encargada de presentar al Pleno una moción por la que las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación a evaluar el impacto de género que tienen las actuaciones del Plan de Choque para dos de las comarcas con mayores problemas de empleo, como son las de Ezkerraldea y Meatzaldea. La iniciativa también solicita que los procesos y programas de selección para la Formación Profesional sean adaptados para superar roles y estereotipos determinados por el sexo, así como que se apliquen medidas tendentes a garantizar una presencia equilibrada de mujeres y hombres en los puestos que impulse la Administración.

La moción ha sido aprobada por unanimidad de 46 junteras y junteros presentes. El representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, la ha calificado de “instrumento útil”, mientras que el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, Jesús Isasi, ha señalado en primera instancia que parte de la moción ya se cumple en la actualidad y ha anunciado su abstención, si bien en última instancia sus tres integrantes han votado a favor. Neskutz Rodríguez, en nombre de Podemos Bizkaia, ha apoyado la moción y señalado que ayudará a planificar actuaciones en cada municipio en favor de la igualdad. Por parte de Socialistas Vascos, Josu Montalban también ha mostrado su apoyo, matizando que la Diputación Foral ya comparte las inquietudes que plantea esta moción. Irene Edesa, en nombre de Nacionalistas Vascos, ha manifestado que su grupo comparte el fondo de la iniciativa, aunque ha subrayado que la Diputación Foral de Bizkaia “está comprometida con la igualdad y lleva años trabajando en este terreno”.

La segunda iniciativa aprobada esta mañana por el Pleno de las Juntas Generales de Bizkaia se ha referido a un Decreto Foral Normativo del Departamento de Hacienda y Finanzas, por el que se establecen reglas especiales para la determinación de la base imponible y del importe de los pagos fraccionados del Impuesto sobre el valor de la producción de energía eléctrica durante los ejercicios 2018 y 2019. El Diputado Foral José María Iruarrizaga ha explicado que se trata de un tributo concertado que se rige por las mismas normas que las establecidas en cada momento por el Estado, y que se ha visto modificado por la reciente aprobación de un Real Decreto-ley sobre medidas urgentes para la transición energética y la protección de los consumidores.

Al haberse tratado como primer punto del orden del día, tan solo 37 junteras y junteros se



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

hallaban presentes en ese momento en la Cámara, que se han repartido entre 27 votos a favor (Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Grupo Popular y Grupo Mixto) y 10 abstenciones (EH Bildu y Podemos Bizkaia).

Proposición de Norma Foral sobre Montes y Líneas 4 y 5 del Metro

El Pleno de hoy ha rechazado por otra parte una Proposición de Norma Foral sobre Montes de Bizkaia, presentada por el juntero Mikel Kormenzana en nombre de EH Bildu, quien ha explicado que su grupo aboga por transitar hacia modelos productivos que apuesten por la diversidad de especies, la rentabilidad de las explotaciones y el fortalecimiento y desarrollo del sector de la madera. La mayoría de los grupos ha aducido la inconveniencia de una propuesta de este tipo en el tramo final de la legislatura y la ausencia de consenso con la mayoría del sector afectado, y la propuesta solo ha logrado el respaldo de Podemos Bizkaia, por lo que ha quedado rechazada con 14 votos a favor y 30 en contra.

Tampoco ha obtenido respaldo suficiente la propuesta de moción del juntero del Grupo Popular, Jesús Isasi, relativa a los estudios de las líneas 4 (Rekalde-Moyúa) y 5 (Etxebarri-Usansolo) de Metro Bilbao. Isasi proponía dotar de una reserva presupuestaria con partida nominativa para acometer en 2019 dichos trayectos. La moción ha contado con una enmienda a la totalidad presentada por el juntero Zigor Isuskiza, en la que se solicitaba incorporar un proceso participativo por parte de los agentes sociales de ambas zonas. La enmienda no ha sido aceptada, y la moción ha quedado rechazada con el único apoyo de los tres junteros del Grupo Popular, 15 abstenciones de Grupo Mixto, Podemos Bizkaia y EH Bildu, y 28 votos en contra de los dos grupos que sustentan el Gobierno foral.

Participación ciudadana y retirada al rey del título de “Señor de Vizcaya”

La juntera de Podemos Bizkaia Eneritz De Madariaga ha visto igualmente rechazada su moción relativa a medidas para garantizar la participación de la ciudadanía en el proceso de información y elaboración de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia. De Madariaga proponía instar a la Diputación Foral a que adopte medidas como desarrollar una versión en lectura fácil para hacer más comprensibles los presupuestos, darlos a conocer mediante una campaña informativa, diseñar un proceso de participación ciudadana, o reservar un porcentaje anual del presupuesto para materializar dichas propuestas. Junto al grupo proponente, han votado a favor el Grupo Mixto y EH Bildu, que han sumado 15 votos; se han abstenido los tres junteros del Grupo Popular; y han votado en contra los 28 representantes de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.

El Pleno ha concluido con el debate y votación en torno a una proposición No de Norma de EH Bildu sobre la retirada del título de "Señor de Vizcaya" que el Rey de España ostenta. La iniciativa ha sido defendida por su portavoz Josu Unanue, y ha suscitado un vivo debate histórico en el que han intervenido Arturo Aldecoa por el Grupo Mixto; Javier Ruiz por el Grupo Popular, José Ángel Elgezabal por Podemos Bizkaia; Juan Otermin por Socialistas Vascos; y Jon Andoni Atutxa por Nacionalistas Vascos. La propuesta solo ha contado con los 14 votos afirmativos del grupo proponente y de Podemos, y el rechazo de los 32 restantes, Grupo Mixto, Grupo Popular, Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos, que sin embargo han mostrado posiciones claramente diferenciadas en el debate en torno a la institución monárquica.